

Venezia txikia esaten dioten ubidea. • ENEKO BIDEAIN



Aduana ohiko plaza, jatetxeen plaza nagusia. • ENEKO BIDEAIN



Hiri alsaziar koloretsua

Denbora luzez egoteko aspergarria gerta badaiteke ere, pare bat egunean bisitatzeko, hiri atsegin eta lasaia da Colmar

ENEKO BIDEAIN

Ez da komeni Colmar hiri alsaziarrean egun pare bat baino gehiago iragatea, hein batetik goiti aspergarri bihur bailiteke hango egonaldia. Oso herri burgesa da. Arratsaldeko 18:30etik goiti taberna guztiak ixten dituzte, egunaz bete-betearak diren karrikak husten dira eta 23:00etatik goiti hobe da isilik egotea ez baldin bada udaltzainen protestarik entzun nahi.

Baina handik hurbil iragatekotan, pena litzateke hiri polit eta lasai hori ikusi gabe gelditzea. Vosges eskualdeko mui-noen azpian, Alemaniatic hamabost bat kilometrotan, Suitzako mugatik hirurogei bat kilometrotan, Estrasburgo eta Mulhousen artean, 67.000 biztanleko hiria «gune estrategikoan» dago. Hirian bertan autoaren beharrik ez baldin bada ere, handik atera ahal izateko, komeni da garraiatzeko era autonomoa ziurtatzea.

Colmarren bertan, zangoak dira lagunik hoberenak, eta oharkabeen kilometroak eta

kilometroak kurri daitezke, itzuli-mitzuli. Colmarko auzo interesgarri bakarra parte zaharra da, berez eremu txikikoa. Alsaziako etxe estiloaren erakusketak bat balitz bezala bisita daiteke, burua beti goiti itzulirik, urratsak zenbatu gabe, karrika batetik bertzera. Etxe guztiek beren zureria guztiak – eta asko dituzte – agerian dituzte, edozein koloretako paretetan. Sinestezina badirudi ere, kolore nahasketa handi horrek ez du itsusten hiri, alderantziz baizik. Etxe berde bat, ubel baten eta marroi baten artean agertzea ez da gauza bitxia Colmarren. Nahasteka horrek alaitasuna ekartzen dio.

Udaberrian, loretan

Alaitasuna maiatzean eta ekainean senti daiteke bereziki, aro ederrak diren egunetan eta bazter guztiak loretan dauden garaian. Parte zaharra, goizetik arratseraino, biziki ederra da eguzkiak agertu nahi duen egunetan. Postal guztietan agertzen diren zenbait etxeren ondolik pasatzen gara ia oharkabeen, eta komeni da behako

batan luzatzea. Hor daude Buruen Etxea (rue des Tztes karrikan), ehun buru zizelkatuz gora dauzkana, baita Pfister etxea ere (Marchands karrikan), 1537koa, bertzeetatik arras desberdina.

Bisitariak bere intuizioari jarraitu beharko dio, gune bisitatu eta jendetsuenez aparteko xehetasunen bila joateko. Zenbait gune, nahi izanez gero ere, ez daitezke huts egin, karrika eta bide-gurutze nagusietan baitira. Adibidez katedralako plaza. Bertako elizak garai labur batez soilik bete zuen katedralaren funtzioa. Baina gaur egun oraino Colmarko egoitzarik nabarmenena da, alde guztietatik ikusten den dorrearekin. Teilen kolorea eta osatzen duten marrazkia oso deigarriak ditu.

Venezian bezala

Handik hurbil dauden bertze bi plaza ere ezinbestez zeharkatzen dira: Dominikarren elizako plaza eta Aduana ohiko plaza. Bigarren hori da jatetxeen plaza nagusia. Alsaziar gastronomia ezagutu nahi duena-

rentzat, kanpoan ezтики afaltzeko parada dago bertan. Baina badira plaza diskretoago eta atseginagoak ere. Turistak autobustrak dabilzan gunetatik pixka bat baztertzea nahikoa da xarma handiko gune bat atzemateko: Place des Montagnes Noires. Etxe ederrak, koloretsuak, plaza lorez betea eta erdian iturri eta estatua batekin. Handik hurbil pasatzen da «Venezia txikia» deitzen duten ubidea, ibilbide zinez goxoa, Poissonnerie kaian barrena.

Eta ez da lotsatu behar jendea ausartzen ez den karrika hertsia-hertsietan sartzeko, labirinto baten gisan. Ia jende gehienek ezagutzen ez dituzten xoko horietan, sorpresa politak aurkitzeaz gain, isiltasuna eta bakardadea estimatzen dira, zenbait denboraz atsedean hartzeko. Parte zaharraren hegoaldeko karrika txiki guztien itzulia egiten laster joaten da denbora. Egund atsegin horren ondolik bigarren bat iragan nahi duenak erakustokiak bisita ditzake, baita elizen ondoan diren kalostrapeak ere, horiek ere merezi baitute.

Non, zer

Non lo egin

Aukera bat baino gehiago dago lotarako, baina honako hau erabat gomendagarria da:

• **La Chaumiere hotela.** (74, av de la Republique). Nahiko merkea, geltokitik eta hiri erditik hurbil, parke handi baten bazterrean.

Non jan

• **Le Caveau Saint-Pierre.** (24, rue de la Herse). Ubidearen bazterrean, bidetik eta jende oldetik arras bakartua. Kanpoan jan daiteke, eta aro ederra baldin bada, merezi du ur bazterrean afaltzea.

Non edan

• **Les Incorruptibles** (1, rue des Ecoles). Hiri erdi-erdiko taberna atsegina, beste guztietan aurkituko ez den giroa daukana. Turista gutxiago eta bertako gazte gehiago ikusiko da bertan.

Zer ikusi

• **Unterlinden erakustokia** (1, rue Unterlinden). 1232ko Dominikarren komentu ohi batean dago. Erdi Arotik Bersorkunde garaiko margolan eta zizelatze lanak ageri dira.



San Martin katedrala, kale artean. • ENEKO BIDEAIN



Unterlinden erakustokia, zinez ikusi beharrekoa. • ENEKO BIDEAIN